

Informazio

# Agerkaria

211

2012ko  
ekaina-uztaila  
junio-julio  
2012

# Boletín

Informativo



Bizkaia  
Jaurerriko  
Abokatuen  
Bazkun  
Ohoretsua

Ilustre  
Colegio de  
Abogados  
del Señorío  
de Vizcaya

**KONDENATUTAKO  
ATZERRITARRAK  
KANPORATZEA  
5/2010 LO, ZIGOR KODEA  
ERALDATZEARI BURUZKOA**

¿IMAGINAS QUÉ  
HARÁS CON EL  
**60%**  
QUE TE AHORRAS  
CUANDO COMPRAS  
NUESTROS  
EBOOKS?



## Librería Virtual EL DERECHO

La respuesta a todas tus preguntas

Contenidos actualizados con las últimas reformas legales

Contenidos disponibles inmediatamente

Autores de prestigio como los de nuestra colección Tribunal Supremo

Abierto las 24 horas, los 365 días del año



EL DERECHO

[www.elderecho.com/publicaciones](http://www.elderecho.com/publicaciones)

**U** dak argira hurbiltzen gaitu, landako usainetara, itsa-soko distirara, lur hezera eta gatzera. Gure adimena askatzen dugu eta jomuga eta atsedeneekin amets egiten dugu. Sentipenak eta bizitza-hatsak bizitzeko itxaropena dugu; agian oso laburrak izango dira, baina batzuetan, gure oroitzapenak argiz betetzeko gai izango dira, oroitzapen horiek mugagabe eta betiereko bihurtuz.

Askatasun-egunekin eta sentipenekin, paisaiekin eta topaketekin amets egiten dugu. Ametsak eragindako askatze-plazerra aurreratzeko, denboraren joana egutegi burugogorrekiko negoziatuz. Laster iritsiko da telefonoa eskegi eta itzuli arte azken deia izango dela esaten dugun une gozoa.

Aztean geratuko dira legegintza-erlaketak, hondoratzeko ekonomia, burtsako datuak eta arrisku-primak. (Nola izango da posible bizitza hori egon dagoela jakin gabe igarotzea? Nola iraun du bizirik, ratinga zorraren kalifikazioa eta bunda alemanez bonoa dela jakin gabe?)

Azken deia hori egiten dugunean, kirol-garaipenak, porrot etsiak izan dituzten finalak, ikurrak, txistuak eta protestak oroitzapen hutsak izango dira.

“

**Nola iraun dugu bizirik, ratinga zorraren kalifikazioa eta bunda alemanez bonoa dela jakin gabe?**

”

beti bidean daudela ziur egonda.

Azken deia hori ahazten dugunean, ez utzi inori ametsen une gozoa lapurtzen.

Atsedenean zoriotsua eta amets gozoak

*Ikustaldiak, togen beroa, epaile batzuen interpretazioa, lankideen asaldura, bezeroen behin eta berriro ekitea. Legegileen axolagabetasuna eta gobernariaren inozkeria.*

*Azken deia hori esekitzen dugunean, begiak itxi eta arnasa sakon hartuko du, eta lehen unean plazerra, atsedena, askatasuna sentituko ditugu. Planak, ametsak, paradisuak eta bidaiak ikusiko ditugu, amestutako uharteak gure desiraren artean daudela eta desiratutako jomugak*

**E**l verano nos acerca a la luz, los olores del campo, el brillo del mar, la tierra húmeda y la sal. Liberamos nuestra mente, soñando con destinos y momentos de descanso que nos dan la esperanza de vivir sensaciones y alientos de vida, quizá realmente breves, pero en ocasiones, capaces de llenar de luz nuestros recuerdos convirtiéndolos en infinitos y eternos.

Soñamos con días de libertad y sensaciones, paisajes y encuentros. Anticipamos nuestro disfrute con el placer liberador que produce la ensoñación, negociando el paso del tiempo con el terco calendario. Pronto llegará ese dulce momento en que colgaremos el teléfono pensando que será la última vez hasta la vuelta.

“

**¿Cómo habremos podido subsistir, sin saber que el rating es la calificación de la deuda y que bund es bono en alemán?**

”

Atrás quedarán las reformas legislativas, la zozobra económica, los datos de la bolsa y la prima de riesgo. (¿Cómo habrá sido posible vivir toda una vida ingenua, macroeconómicamente inmaculada sin saber de su inapelable e indudable existencia? ¿Cómo habremos podido subsistir, sin saber que el rating es la calificación de la deuda y que bund es bono en alemán?)

Cuando hagamos esa última llamada, serán sólo un recuerdo los triunfos deportivos, las finales con derrotas resignadas, los símbolos, los silbidos y protestas.

Las vistas, el calor de las togas, la interpretación de algunos jueces, la agitación de compañeros, la insistencia de clientes. La indiferencia de legisladores y estulticia de gobernantes.

Cuando al fin colguemos esa última llamada, cerraremos los ojos respirando hondo y viviremos un primer instante de placer, descanso, libertad. Un instante lleno de planes, sueños, paraísos y viajes con el firme convencimiento de que las islas soñadas están en nuestros deseos y que los destinos deseados están siempre en el camino

Cuando al fin olvidemos esa última llamada, no dejéis que nadie os robe el dulce instante de los sueños.

Feliz descanso y dulces sueños



**Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua**

**Ilustre Colegio de Abogados del Señorío de Vizcaya**

**Decano / Dekanoa**  
Nazario Oleaga Páramo

**Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea**  
Ana Bermejo Arteagabeitia  
Beatriz Barquín Torre  
Ignacio Alonso de Errasti

**Colaboradores / Laguntzaileak**

César Gallastegi Aranzabal  
Garazi Arraibi Larrea  
Jorge Marqueta Andrés  
Eduardo Ranedo Fernández  
Idoia Manzarraga Zamalloa  
Alberto Martínez Ruiz

**Fotografía / Argazkigintza**  
E. Moreno Esquivel

Depósito Legal / Legezko gordailua  
2.069/1987


<http://www.icasv-bilbao.com/>  
[elboletin@icasv-bilbao.com](mailto:elboletin@icasv-bilbao.com)

NUESTROS CLIENTES LO SABEN

Hemos agilizado el seguro de

# Responsabilidad Civil Profesional

e innovado en su gestión,  
para una mayor eficacia.



 **W R Berkley**  
E S P A Ñ A


Paseo de la Castellana, 149  
28046 Madrid  
T. +34 91 449 26 46  
F. +34 91 449 26 99

[www.wrblondon.com/spain](http://www.wrblondon.com/spain)

2012ko ekaina-uztaila  
junio-julio 2012

06

## BERRIAK



08

## INFORMAZIOA

Abokatu Gazteen Estatuko XVII. Kongresua.  
AJA BIZKAIAREN Bitartekotza Zibilari eta  
Merkataritza Bitartekotzari buruzko hitzaldia.



II- Zigor epaiaren bidez kondenatutako  
atzerritarrak kanporatzeari buruzko alde  
praktikoak 5/2010 LO, Zigor Kodea  
eraldatzeari buruzkoa, onartu eta gero.

14

## JARDUNALDIAK

Hipoteka zordunaren abokatuaren  
eginkizuna hipoteka-egikaritzeen aurrean.  
Defentsa badago



18

## BAZKUNEKO LIBURUTEGIA



20

## LEGEGINTZA BERRITASUNAK



22

## KULTUR ERANSKINA



## PAROT DOKTRINA ONARTZEAREN AURKAKO LEGELARIEN ADIERAZPENA

Adierazpen hau sinatzen dugunok zuzenbidearen esparru desberdinetan lan egiten dugun pertsonak gara eta adierazi nahi dugu guztiz aurka gaudela Konstituzio Auzitegiak Auzitegi Gorenaren otsailaren 28ko 197/06 epaiak hasitako doktrina onartu delako arlo horren inguruan oraintsu emandako epaietan.

Izan ere, gure ustez:

- Konstituzio Auzitegiak baieztatzen duena pertsona espetxeratuen askatasunerako oinarritzko eskubideari egindako eraso zuzen moduan soilik uler daiteke.

- Planteatutako gaiak garrantzi handia du; izan ere, espetxeratuen kondenak luzatu egiten dira indargabetutako zigor kodea dela bide. Gaia ez da sakon jorratzen, Konstituzioaren aldetik esanahirik ez duela esanda. Modu horretan, lanaren ondoriozko zigorren gutxitzea gauzatze-kondenaren aplikatzeari buruzko interpretazio berriak bete-betean ukitzen du askatasunaren oinarritzko eskubidea, baina Konstituzio Auzitegiak ez du horren inguruko pronuntziamentu juridikorik egin, baina interpretazio horri eutsi dio.

- Gai honen funtsari buruzko pronuntziamenturik ez egotea ahultasunaren eta sendotasun juridikorik ez egotearen ondorioa da, bai doktrinarena berarena zein aurkako esanguran urte askotan modu baketsu eta adierabakarrean interpretatu ondoren modu harrigarri eta ustekabean agertzearena ere.

- Konstituzio Auzitegiak orain ospetsu bihurtutako doktrinak zigor legezketasunaren printzipioak eta segurtasun juridikoaren printzipioak urratzen ditu, eta horren ondorioz, baita askatasunerako oinarritzko eskubidea ere:

- batetik, indargabetutako arau

baten interpretazio berria delako (1973ko ZKren 70.2 art.), arau horren indarraldian izandako aplikazioaren guztiz aurkakoa, termino berritzailea gehituta (espetxean betetzeko gehiengo), 1973ko Zigor Kodearen testu bateginean ez espetxe-legerian formulatuta ez zegoena (ez da ez batean ez bestean oinarritzen).

- bestetik, doktrina honen interpretazio berriaren izaera harrigarria dela-eta, espetxeratuak ezin izan du ez itxaron ez aurreikusi kondena betetzen egon den bitartean, eta askatasun-igurikimena sortu zaio.

- Ildo beretik, Konstituzio Auzitegiak doktrina hori berrestea zigor-arauen aplikazioan ziurgabetasunari atea irekitzea da, baita nahierakeriari ere zuzenbidearen aplikazioan.

Ohar horiek kontuan hartuta, hau dela eta guztiz arduratuta gaudela esan nahi dugu:

\* Goi-auzitegiek emandako ebazpen judizialek erabateko iragazkortasuna dute motibazio, objektu eta izaera politikoaren erabaki edo irizpideekin alderatuta.

\* Bereziki azken urteetan ikusten ari garen desbideratzea, zigor eta espetxe zuzenbidearen aplikazioaren esparruan, eta bereziki zigorrak betetzeari lotuta, oinarri izan beharko lituzketen berreziketa edo birgizarteratze irizpideei eta zigor hutseko, adibide hutseko edo mendeku hutseko irizpideei erreparatuta.

\* Azken urteetan bereziki zuzenbidea "ad hoc" aplikatzea sendotzen ari da, eta modu larrian desbideratzen ari da etsaiaren zigor zuzenbiderantz, zuzenbideko setatu batean oinarri izan behar diren printzipioen aurrez aurre.

\* Zigor eta espetxe arloan egin diren etengabeko eraldaketak, bate zere



kondenak betearztearen arloan eta espetxeratua birgizarteratzeari begira, "delituaren biktima asetzeari" begira soilik planteatu dira, delitua bera desagertzeari edo jazartzeari begira baino, zigor-eskubidearen aplikazio anker eta krudelean.

Amaitzeko azpimarratu nahi dugu, esanguratsua iruditzen zaigulako, gaur egungo fiskalburuak Konstituzio Auzitegiko fiskala den aldetik egin dituen txostenetan adierazi duela Auzitegi Gorenak otsailaren 28ko 197/06 Epaiaren egindako doktrina zigorrak bateginda zituzten eta 2006ko otsailera arte zigorrak betetzen ari ziren pertsonen aplikatzeak pertsona horien babes judizial eragingarria urratzen duela, ebazpen judizial irmoak ukiezinak direlako, baita askatasunerako oinarritzko eskubidea ere; horrez gain, legezketasun printzipioa ere urratzen du, arau penal kaltegarrien eta horien interpretazioaren atzeraragina debekatzen duelako.

Eta, era berean, esanguratsua da Auzitegi Gorenako eta Konstituzio Auzitegiko magistratu asko, boto partikularren bidez, doktrinaren agertzen den interpretazio berri honen aurka egotea, askatasunerako, legezketasunerako eta segurtasun juridikorako oinarritzko eskubideak urratzen dituela pentsatuta.

## BIZKAIKO ABOKATUEN BAZKUNAK EUROPAN DUEN AGERPENA HANDITU ETA EUROPAKO ABOKATUTZAREN BARRUAN DUEN OSPEA BERRETSI DU

Javier Diago bilbotar abokatuak Europako Abokatuen Elkargoen Federazioko (FBE) idazkari nagusi hautatu dute berriro Bruselan

Bizkaiko Bazkunak FBEko prestakuntza-programak egin ditu 1997tik. Orduan akordio bat sinatu zen, eta hori dela bide, Federazioko prestakuntza-proiektu guztiak antolatzeaz antolatzen da, Abokatutzaren lanbide-prestakuntzako foro egonkorren bidez – STAGE Batzordea. Batzorde horrek urtero prestakuntza-jardunaldi bat garatzen du Europako Abokatutzarentzat, **Aitzol Asla** Bizkaiko Bazkuneko **Praktika Juridikoko Eskolaren** zuzenbidearen babespean.

- Justizian sarbidea izateko **Batzordeak**, **Antonio J. Perdices** abokatu buru dela, programa zientifikoko

batzen prestakuntza osoa bere gain hartzen du, eta hori gertaera ezezaguna da FBEen.

- Bizkaiko Abokatuen Bazkuna gazteak FBEko lanetan sartzeko sustatzaile nagusia da, Nazioarteko Harremanen Batzordearen bidez.
- FBEK ezinbesteko eginkizuna du **Europar Giza Eskubideak** babesteko eta, batez ere, **Europako herriarrek justizian sarbidea izateko eskubidea** babesteko, gaur egun guztiz mehatxatuta dago eta
- FBE **Nazario Oleaga Páramo** Bizkaiko Bazkuneko gaur egungo dekanoa **Federazioko** presidente izateko hautagaitza kontuan hartzen ari da



Milaneako Abokatuen Bazkunearekin senidetzea sinatu du Bazkunak.

## ABOKATUEN MUTUALITATEAK “SARIAK BIKAINTASUNARI” DEITU DITU PRAKTIKA JURIDIKOKO ESKOLETAKO IKASLERIK ONENENTZAT

Ekimen horren bidez, **“Mutualitate Katedrak”** abokatuen belaunaldi berrien trebakuntzarekin duen konpromisoa indartu du.

Praktika Juridikoko Eskolen XXXI. Jardunaldietan, Málaga, Mutualitateak beste pauso bat eman du **“Mutualitate Katedra”** proiektuaren barruan. Hain zuzen ere, **“Mutualitate Katedraren Bikaintasun Sariak 2012”** Sarien oinarriak aurkeztu zituen, eta abokatuen belaunaldi berrien trebakuntzarekin duen konpromisoa indartu du.

Sarien bidez, Abokatuen Mutualitateak zuzenbideko gradudunen eta lizentziatuen ahalegina babestu, sustatu, aitortu eta saritu nahi du, **Praktika Juridikoko Eskola** baten barruan lanbidean aritzeko prestatzen ari diren etapa honetan errendimendu akademiko ezin hobea erakusten badute.

Saria Abokatu Lanbidean Hasteko Praktikak Kontseilu Nagusiak (CGAE) homologatutako eskola batean egin dituzten ikasleei bideratuta dago. Eskola horrek Mutualitate Katedraren hitzarmena sinatuta izan behar du, eta ikasleak Lanbide Gaikuntzako Ziurtagiria (LGZ) lortzeko probak gaindituta izan behar ditu.

Orain arte, Espainiako hiri nagusietako **Praktika Juridikoko 44** eskolak Bikaintasunaren Sariak hartu dituzte Mutualitatearekin sinatutako hitzarmenaren bidez. Eskola horien artean **Bizkaiko Abokatuen Bazkun Ohoretsuko “Pedro Ibarreche” Praktika Juridikoko Eskola dago –abokatutzan hasteko modalitate eskusibo–.**

Hautagai bakoitzak lan originala aurkeztu behar du, gai libreaki buruzkoa, eta banaka egindakoa.

Bikaintasunari emandako sariak hamar mila euro ditu (10.000 €), bi urte kuotarik gabe Abokatuen Mutualitatean eta osasun-aseguruaren eta istripu modalitateetan, sarituaren bizilekuko Abokatuen Bazkunean alta ordaintzea, baita erakunde horretako kuotak ere lehenengo bi urteetan, eta lortutako saria egiaztatzeko diploma.

Deialdi hau dela eta, Mutualitateak saritutako lan guztiak biltzen dituen liburua argitaratuko du. **“Mutualitate Katedrako Bikaintasun Sariak” 2013.** urtean **Praktika Juridikoko Eskolen** jardunaldietan antolatutako ekitaldi publikoan banatuko dira.

Eskaera eta lana 2013ko otsailera arte urkez daitezke, modu eskusiboan, Mutualitateko web orriaren bidez: [www.mutualidadabogacia.com](http://www.mutualidadabogacia.com)

Abokatu Gazteen Elkarte

# ABOKATU GAZTEEN ESTATUKO XVII. KONGRESUA

## BITARTEKOTZA ZIBILARI ETA MERKATARITZA-BITARTEKOTZARI BURUZKO HITZALDIA. AJA BIZKAIA



2012ko ekainaren 14, 15, 16 eta 17an, Granadan, Abokatu Gazteen setatuko XVII. Kongresua egin zen, lelo honekin: *“Abokatu gaztea: orainaldiko eta etorkizuneko apustua”*.

Kongresuan Espainia osoko Abokatu Gazteen Elkarteetako lankide ugari bildu ziren, eta gainera, magistratuak, idazkari judizialek, arbitroek eta zuzenbideko profesional aipagarriek parte hartu zuten. Guztiek gaur egun gure lanbidean aritzeko garrantzi handia duten gaiak jorratu zituzten, hala nola: *justizia digitala, bitartekotza eta arbitrajea, bizkortze prozesala, hipoteka-betearazpenak, lanbide-ordainsariak eta greba-eskubidea ofizioko txandan*.

Bizkaiko Abokatu Gazteen Elkarteak Kongresuko Mahaian eta bitartekotza zibilari-merkataritzakoari buruzko hitzaldia egiten modu aktiboan parte hartu zuen. Hitzaldira jende asko bertaratu zen, diziplina horrek interes gero eta handiagoa sortzen du eta.

Bitartekotzari buruzko hitzaldia hasteko, Nerea Martínez Santos AJA Bizkaiko kideak eta BJABOko Bitartekotzari buruzko Ikerketa Taldeko kideak hartu zuen hitza. Hizlariak gatazkak ebazteko dauden metodo alternatiboak

aztertu zituen, eta bitartekotza berezia dela azpimarratu zuen, tradiziozko sistema judizialaren edo arbitrajearen aurrez aurre.

Hitzaldian Europako 2008ko Zuzentaraua eta Estatuak oraintsu arlo zibil eta merkataritzakoetan bitartekotza egiteari buruz egindako araudia aipatu zituen. Jarraian bitartekotzako inarri dituen printzipioak adieraziz ituen, hurrengo hauek oso garrantzitsuak direla azpimarratuz: *borondatezkotasuna, alderdien autonomia, konfidentzialtasuna eta bitartekariaren profesionaltasuna*, bitartekotza arrakastatsua izateko funtsezko oinarri moduan.

Hizlariaren ustez, bitartekotzan, hirugarren neutral eta inpartzial bat egoteak konponbideen bilaketa eta gatazkan dauden alderdien interesen konbinazioa errazten ditu, irabazi-irabazi printzipioan oinarritutako prozesu boluntario eta kooperatiboaren bidez. Mekanismo horrek bide judizialaren aurrean bide alternatiboa planteatzen du, azkarragoa eta merkeagoa; eta alderdiek bitartekotza-prozesuan modu boluntarioan parte hartzen dutenez eta gatazka autokudeatzeko ahalmena dutenez, errazagoa da erdietsitako akordioak modu boluntarioan betetzea.

Hori dela eta, hizlariaren ustez, bitartekotzak, gatazkak kudeatu eta ebazteko tresna moduan, bide judizial klasikoaren osagarria denak, *muturreko aldaketa eragiten du kulturaren eta praktika juridikoan*, eta denborarekin, justizia, harreman pertsonal eta merkataritzakoak aldatzea lortuko du, eta horrekin batera, baita gizarte-elkarbizitza ere.

Parte-hartze horren ostean, María Rotaetxe Rosón abokatuak, AJA Bizkaiko eta BJABOko Bitartekotzari buruzko Ikerketa Taldeko kideak, lehenengo eta behin, *bitartekotza-prozesuko faseak* eta horiek duten garapen praktikoa deskribatuz ituen, lehenengo informazio-saiotik akordioa idatzi arte. Hizlariaren esanetan, prozesua guztiz egitura-tuta dago, izaera malgua gorabehera.

Modu berean, *2012ko martxoaren 2ko 5/2012 Errege Dekretu Legeak* onetsitako arau-berrikuntzak nabarmendu zituen. Prozedura Zibilaren Legean aldaketa garrantzi-



XVII  
Congreso Estatal  
de la Abogacía Joven

Granada, del 14 al 17 de Junio de 2012

tsuak egin dituela nabarmendu zuen. Hori dela bide, *eten egiten dira*, bitartekotzaren hasieratik amaieraraino, prozesuko emaitza gorabehera, *ekintza judizialen preskripzio- edo iraungitze-epeak*, baita aurretik hasietako prozesu judizialak ere.

Hizlariak azpimarratutako beste aldaketa garrantzitsu bat izan zen *bitartekotza akordioari izaera betearazlea* ematen zaiola, *eskritura publikoan jasotzen baita*; horrek esan nahi du ez dela beharrezkoa bide arruntera jotzea adostutakoa betetzea eskatzeko ez-betetze kasuak daudenean.

Amaitzeko, hizlariak gogoeta laburra egin zuen bitartekotzak, gatazkak ebazteko erreminta eraginkor moduan, gizartean aurrera egin dezan beharrezkoak diren giltzarri batzuei buruz. Lehenengo eta behin, beharrezkoa da *bitartekotzaren prestakuntzaren garrantzia* azpimarratzea. Mota honetako metodo alternatiboetan, sinesgarritasuna eta segurtasuna parte-hartzaileek bitartekariarengandik jasotzen duten konfiantzari edo usteari lotuta daude, eta bitartekariak trebetasuna eta gaitasun profesionala izango ditu gatazka modu positiboan kudeatzeko; hori lortzeko, prestakuntza egoki eta zehatza egin behar da.

Aurrekoari jarraituz, hizlariaren esanetan, *Abokatutzaren Kolektibotik* kontzientziatu egin behar dugu bitartekotza ez dela batearazina gure lanbidearekin. Horren ordez, gure bezeroei gatazka modu egokian konpontzeko eskura dugun beste erreminta baten moduan hartu behar dugu

Bitartekotza zibilari eta merkataritzakoari buruzko hitzaldi honetan, Paulino Fajardo Madrilgo Abokatuen Bazkun Ohoretsuko abokatua ere gure artean izan genuen. Fajardo Erresuma batuko *Centre of Effective Dispute Resolution* (CEDR) izenekoak akreditatutako bitartekaria eta Txileko Santiagoko Arbitraje eta Bitartekotza Gorteko arbitroa da; hona hemen berak aztertutakoa: *bitartekotzaren eta elkarlaneko negoziazioaren abantailak gatazkak ebazteko metodo alternatibo moduan, batez ere enpresa-esparruan*.

Oro har, metodo horiek ezaugarria da prozeduretan malgutasuna dutela, alderdien arteko harremanari eusten zaiolako, eta ebazpena azkar ematen delako. Horren ondorioz, kostu ekonomiko eta pertsonalak murriztu egiten dira eta ez da auzibidera jo behar.

Hizlariaren esanetan, *enpresa-esparruan*, metodo alternatibo horiek, eta batez ere bitartekotza, sendotu egin dira nazioartean, enpresen arteko gatazkak ebazteko mekanismorik eraginkorrenak baitira. Konfidentzialtasuna, denbora eta kostuak aurrezte eta merkataritza-harremanak ez higatzea abantailak dira; horrek esan nahi du, enpresen arteko gatazka konpontzeko metodo tradizionala edo alternatiboa hautatzea erabaki estrategikoa izaten dela.

Hori dela eta, eta azalpena amaitzeko, Paulino Fajardok esan zuen abokatuek gatazkak ebazteko metodo alternatiboaren inguruko prestakuntza jaso behar dugula beste alderdiaren abokatuarekin dugun negoziazioan elkarlanean aritzeko edo kasu zehatza ebaluatu ondoren, bitartekotza bide judizialaren aurreko alternatiba baliozko eta eraginkorra dela behar den moduan azaltzeko.

Jardunaldia amaitu ondoren, Kongresuko Mahaiak, Gorka Salaberria Bustos eta David Pérez Alonso AJA Bizkaiko kideak tartean zirela, bitartekotzari buruz egindako hitzaldiei buruzko ondorioak idatzi zituen, gerora eztabaida eta galderen txanda egiteko.

Eztabaidan lortutako ondorioaren arabera, bitartekotza gure lanbidearen ikuspegian aldaketa izateko aukera da, eta abokatuei "gatazkak ebazteko metodo alternatibo" buruzko prestakuntza egokia eskaintzea abokaturaren aritzeko eta justizia modernizatzeko etorkizuneko apustua izango da.



XVII  
Congreso Estatal  
de la Abogacía Joven

Abogado joven:  
apuesta de  
presente y futuro

GRANADA

14 al 17 de Junio  
2012

www.xviicongresoaj.es

CEAJ | IBERLEGI | gaj

Cristina Balboa Dávila. Bilboko Zigor Arloko 7. zenbakiko Epaitegiko Errefortzuko Epailea (Zigor Betearazpena)

## II- ALDERDI PRAKTIKOAK ZIGOR EPAIAREN BIDEZ KONDENATUTAKO ATZERRITARREN KANPORATZEA BETEARAZTEKO ZIGOR KODEA ERALDATZEKO 5/2010 LO-REN OSTEAN.

### I.- SARRERA

Aldizkari Ofizial honen **185. zenbakian** argitaratutako artikuluan, besteak beste azaldu nuen une hartan Espainian legez bizi ez ziren eta zigor epaia dela bide sei urtetik beherako zigor askatasun-gabetzailea dela bide kondenatzen zituzten atzerritarren kanporatzeko erabiltzen zen prozeduran aplikatzeko moduko lege araubidea. ZKko 89. artikuluan ezarritako kanporatze judizialaren arauketak aldaketa garrantzitsua izan du ekainaren 22ko 5/2010 LOk Zigor



Kodean egindako eraldaketaren ostean (LO hori 2010eko abenduaren 24tik dago indarrean). Arauketa berria aurrekotik bereizten da funtsezko alderdiei dagokienez, epaiaren erabakimen handiagoa erakusten dutenak; hori dela bide, kanporatzean berrikuntza garrantzitsuak gehitu dira, izaerari dagokionez (orain ez da automatikoa), kanporatzea orain hainbat unetan erabaki daitekeelako, zigor askatasun-gabetzailea ordeztzeko mota desberdinak daudelako (osorik edo modu partzialean, zigorra betetzeko

azken tartean) eta segurtasun-neurri horren betearazpena eta urratzea.

### II.- 89. ARTIKULUAREN ALDAKETAK ERALDAKETAREN OSTEAN

1.- Lehenengo eta behin, kanporatzean **automatismoa ezabatzen da**, ezin baita ezarri zigortuari entzun gabe; hala ere, aurreko idazketako *automatismoa* zuzendu egin zen Auzitegi Goreneko jurisprudentziaren bidez eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren bidez. Auzitegi Gorenak indarreko legezketasuna konstituzio-irakurketatik interpretatu zuen, horrek etorkinaren (legezkoa zein ez) oinarritzko eskubideetan izan dezakeen eragina kontuan hartuta (eskubide horiek Konstituzioan eta Espainiak sinatutako nazioarteko hitzarmenetan aitortuta daude). Europako Auzitegiak Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak babesteko Europako Hitzarmenaren 8. artikulua interpretatuz eman zuen jurisprudentzia, aurreko artikuluan azaldu zen moduan.

89. artikulua, 1. idatz-zatia osorik ordeztan zein 5. idatz-zatia modu partzialean ordeztan, kanporatzearen aginduzko izaerari eusten dio, eta horren ondorioz, Espainiako lurraldetik kanporatzeko eskaerak arau orokorra izan behar du, baina epaileak edo auzitegiak 89. artikulua aplikatzeari edo ez aplikatzeari buruzko erabakia motibatua behar du, Konstituzio Auzitegiak definitutako epaileen babes eraginkorra izateko eskubidetik eratorritako eskakizun argia da-eta, baita zuzenbidean oinarritutako ebazpena lortzeko eskubidea ere, hau da, ebazpen motibatua, baina erabaki hori Espainiako espetxe batean betetzea justifikatzen duten arrazoietan oinarrituz, hala nola prebentzio orokorreko eta bereziko arrazoiak, politika kriminalari lotutako interes publikoak kontuan hartuta beti. Bi motak dira batez ere:

a) Delitu-egitatearen izaera, larritasuna, zigor-aurrekariak eta zigortu atzerritarren aurka abiatutako beste zigor-prozedura batzuk egotea. Kanporatzea ukatu behar da larritasun edo arrisku bereziko gertaeren aurrean (indarkeria berezia erabiltzea pertsonen aurka, droga-trafikoa kopuru urria kez badira, giza hilketa, lapurretak armak



erabiliz jendea bizi den etxean bahituak hartuta, gizakien sale-rosketa, adingabeen ustelkeria eta nazioarteko delinkuentzia antolatua.)

**b)** Zigortuaren inguruabar pertsonalak Espainian izan dezakeen integrazioari dagokionez, gizarte-, familia- edo lan-izaerako erro-rtzea dagoela zehazten dutenak. Horiek kontuan hartu beharko dira ordezteko adosten duen ebazpena emateko orduan. Aurretik esandakoa berriro errepikatu gabe eta familia-errotzea erakus-teko askotan planteatzen diren bi inguruabar aipatuz, ez dago zalantzarik espainiar batekin ezkontzeak, kanporatzea ezartzen duen kondena dagoenean, ezkontzaren interes utilitarista agerian uzten duela; hau da, kanporatzea modu batean edo bestean era-gotzi nahi da, eta hori ezin da familia-errotze moduan hartu. Beste kontu bat da Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kide bateko nazioko seme-alaba baten aita izatea, kasu horretan ezin baita kanporatzea ezarri. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, 11-3-8 epaiaren bidez (kasu horretan, Kolonbiako bi herritarren seme-alabak Belgikan jaioak ziren eta belgikar naziotasuna zuten eta, beraz, Europar Batasuneko herritarren estatutua zuten) gogorarazi zuen estatu kide bateko naziotasuna lortzeko bete-kizunak arautzea kasuan kasuko estatu horren eskumena den arren, Europar Batasuneko zuzenbideak ez dituela honako hauek onartzen: batetik, estatu kide batean Europar Batasunekoak diren seme-alaba adingabeak mantentzen dituen hirugarren estatu bateko nazioko bati seme-alaba horien estatu kidean bizitzeari uko egitea, eta bestetik, hirugarren estatu bateko nazioko horri lan-baimena ematea, erabaki horiek direla bide adingabe horiek Europar Batasuneko herritar estatutuari lotutako eskubideen zerezana galduko lukete eta.

**2.-** Eraldaketaren ostean, **kanporatzea geroko auto motibatu baten bidez adostu daiteke**, alderdiei entzunda beti. 89. artikuluaurreko idazketan aukera hori ez zen existitzen. (Konstituzio Auzitegiak, 2090-2004 babes errekurtsua 06-5-8 epaiaren bidez ebatziz, kanporatzearen inguruan ebazpena emateko ezintasuna adierazi zuen epaia betearazpen-fasean zegoenean, zigorra sei urtetik gorakoa denean izan ezik).

**3.-** Hirugarren, **kanporatze-neurriaren iraupena** aldatu egin da, eta gutxienez 5 urteko iraupena eta gehienez 10 urtekoa izango du (lehen 10 urteko epe bakarra zegoen), eta berriro ere epaileak ondo

arrazoituta finkatuko du kanporatze epea zein den. Gaur egungo idazketak itzultzeko debekua ordeztutako zigorraren iraupenari lotzeaz gain, zigortuaren inguruabar pertsonalei ere lotzen die. Edonola ere, Fiskaltzak 5/2011 zenbakiko zirkularra egin zuen, Fiskaltzak atzerritarren eta immigrazioaren arloko jardun espezializatuaren batasuna bultzatzeko; hurrengo hau aholkatzen da: *“bost eta bederatzirte bitartean itzultzeko debekua sei urtera arteko zigor askatasun-gabetzailea ezarri zaien zigortuentzat erreserbatu dadila, eta hamar urtean itzultzeko debekua muga horretatik gorako zigor askatasun-gabetzailea ezarri zaien zigortuentzat erreserbatuta egongo da.”*

**4.-** 5/2010 LOren osteko berrikuntza garrantzitsu bat **Espainiara itzultzeko debekua urratzearen** ondorioei buruzkoa da. Aurreko idazketan zigortua berriro ere jatorrizko herrialdera itzultzea soilik zen posible, eta kanporatzearen epea berriro ere zenbatzen has-tea; orain, aldiz, bi kasu ezartzen dira:

1. Zigortua mugan harrapatzen dute Espainiara itzultzeko aha-lerinak egiten ari dela; orduan, ondorioa aurreko idazke-tako bera izango da.
2. Gainerako kasuetan, hau da, zigortuan azioko lurraldearen barruan harrapatzen dutenean, jatorrian ezarritako zigorra edo bete gabe dagoen kondenaren aldia betearaziko dira, edo, hala denean, kondena betearaztea etengo da edo Zi-gor Kodearen 88. artikuluan ezarritakoaren arabera ordeztuko da.

Puntu honetan, komeni da zigor-lege mesedegarrienaren atzera-eragin-printzipioa gogoraraztea. Hau da, zigortua Espainiara itzultzen bada 5/10 LO indarrean jarri aurretik kondenatu eta kanporatu ondoren, jatorrizko herrialdera itzuliko da berriro; bai-na 89. artikuluaurreko gaur egungo idazketarekin, bigarren kasuan egongo ginatke, eta aipatu printzipioa aplikatuz, mesedegarrie-na den legeria entzun beharko luke eta beti legelari batek aho-lkatuta.

**5.-** Bosgarren, 89. artikuluaurreko 5. idatz-zatian baimentzen da, Fiskaltzak, zigortua eta bertaratutako alderdiak entzun ondoren, **ordezko kanporatze partziala** eskatzea zigorraren zati bat bete ondoren, espetxe-tratamenduaren hirugarren gradua lortzen de-nean edo zigorraren hiru laurdenak bete direnean legezko egoi-



tzarik ez duten atzerritar espetxeratu guztientzat, betiere, zigor askatasun-gabetzailea bete behar badu edo bete-tzen ari bada. Orain ez dago sei urtetik gorako espetxeraztea gairatzeko betekizunik. Zigorra betetzea espetxean benetan egotea dela ulertu behar da, eta ez baldintzazko etetea edo ordeztea ezarrita izatea.

### III.- MODALITATEAK KANPORATZEA BETEARAZTEAN

Aparteko aipamena merezi dute 89. artikulua idazketa berriarekin planteatzen diren kanporatze-neurriaren betearazpen modu desberdinek. Seigarren paragrafoan arautzen dira: *“Kanporatzea adosten denean artikulua honetan ezarritako edozein kasutan, eta atzerritarra ez badago edo ezarritako zigorra betearaztean askatasunaz gabetuta geratzen ez bada, epaileak edo auzitegiak adostu dezake, kanporatzea bermatzeko, atzerritarra barneratze-zentro batean sartzea, Legean gobernu-kanporatzerako ezarritako mugekin eta bermeekin.”* Legean

bi kasu planteatzen dira:

1. Ezarritako zigorraren betearazpenean zigortua **aske** egon behar izatea; horrek behartzen du aurreko balizko kondenak baloratu behar direla zigor aurrekariak dituen jakiteko, eta betiere, zigorrak bi urteko espetxealdia gairatzeko ez badu; horrek esan nahi du betearazpena hastean askatasunaz gabetuta geratuko litzatekeela.
2. Zigorraren betearazpen hipotetiko honetan, kanporatzearen ondoriozko ordezteak egongo ez balitz, zigorra **espetxean** bete behar izatea, hau da, zigor aurrekariak ditu edo ezarritako zigorrak edo zigorraren baturak bi urte gairatzeko ditu edo espetxerata dago. Kasu horretan, epaitegiak kanporatzea materializatzeko duen modua eraldaketaren aurreko berbera da (azalpen gehiagorako, jo aurreko argitalpena).

Lehenengo modalitateak, hau da, zigortua aske egon behar izateak, planteatzen du kasuistika handiena. Printzipioz, eta ondorioz zailena saihesteko, hau da, zigortua barneratzea eta askatasunaz gabetzea, zigortuaren eskubideak bermatzeko eta 89. artikulua sensu kontrario interpretazioan baimentzen denez, (*epaileak edo auzitegiak, kanporatzea bermatzeko, atzerritarrak barneratzeko zentroan sartzea adostu ahal izango du*), gaur egun herrialda borondatez uztea baimentzen ari da, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizartertzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 63 bis artikuluan ezarritako prozeduraren analogiaz. Nola ez, horretarako pasaporte indarrean izatea eskatzen da. Kasu honetan, aurrez aurre deitzen zaio epaitegian kanporatze izapideak abiatzeko eta herrialdea uzteko garraio-bidearen berri eman dezan (hegazkin- edo itsasontzi-txartela) edo bestela Poliziaren Zuzendaritza Nagusian, Atzerritarren Probintzia Brigadan, egun eta ordu batean agertzeko deitzen zaio, kanporatzea formalizatzeko beharrezko eginbideak egiteko. Gobernu-agintarien aurrean behar den beste alditan agertu behar du, eta horrela egiten ez badu, kanporatzea materializatuko da,

aurreko atalean bezala. Ondorio bera izango du herrialdea borrodatuz uzten ez badu. Epaitegiak beharrezko kontrol-neurriak hartzen ditu herrialdea borrodatuz uzten dela egiaztatzeko, horren inguruko txostena eskatzen baitzaio Guardia Zibilaren Zuzendaritzari mugako kontrolaren bidez, edo bestela, zigortua leku ezezagunean badago.

Baina kanporatzearen aurretik espetxe batean sartzea, 19/2003 LOren 17. Xedapen Gehigarrian ezarritakoa, erreserbatuta dago kanporatzea adosten denean zigortua espetxeratuta dagoen kasurako eta ezarritako espetxe-zigorragatik askatasunaz gabetuta geratu behar den kasuetarako. Gainerako kasuetan, kanporatzea bermatzeko, atzeritarrentzako barneratze-zentro batean sartzea adostuko litzateke.

Hala ere, Bilboko betearazpen penalen epaitegian, aurreko izapideak eraginkorrak izan ez direnean, kanporatzea bermatzeko, espetxe batean sartzea adosten da, atzeritarrak barneratzeko zentroan (ABZ) baino, zenbait arrazoi direla bide. Lehenengo eta behin, 19/2003 LOren 17. Xedapen Gehigarria ez delako indargabetu, Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoelako ABZrik eta zentro horien ezaugarriengatik, espetxe izaerarik ez duten establezimendu publikoak baitira (ALoren 62 bis artikulua). Zentro horiek ez dituzte segurtasun-neurri egokiak eta langile kualifikatuak, eta gainera, funtzionamendu-araubidea alda daiteke administrazioko arau-hauste huts bat eta zigor epai batek kondenatuta daudenak eta orain aztertzen ari garenak bereizi egin beharko lirateke-eta. Bestalde, gaur egun Ministerioaren agindu baten bidez soilik arau-



tuta daude, baina dirudienegaz gaur egun Barne Ministerioak Erregelamenduaren aurreproiektua prest du barneratuen eskubideen eta zentroko bizimoduaren araubidearen arauketa zehatz eta xehatuarekin. Arauketa hori beharrezkoa da azken urteetan instalazio horietan salatu diren irregulartasun ugariengatik. Espetxeetan, aldiz, legeria zehatza egoteaz gain, Espetxe Zainketako Epaitegia ere badago, barneratuen eskubideak esanbidez zaintzen dituena.

Nos hemos  
unido a un  
equipo en el que  
confiam más  
de 315.000  
personas.

Iker Martínez  
y Xabi Fernández  
Medalla de Oro JJOO  
Atenas 2004 y  
Plata Beijing 2008  
Regatistas de BAT Basque Team



IMQ, Aseguradora  
Médica Oficial de **basque team**

## gana en salud con la mayor red sanitaria

### IMQ Abogados

#### Todo lo que le pides a un seguro médico

- Sin esperas, completa cobertura sanitaria para ti y los tuyos
- Tecnología médica de vanguardia
- Centros propios y las principales clínicas privadas de Euskadi
- Libre elección entre más de 35.000 profesionales
- Prestigiosos centros a nivel nacional
- Sin copagos (excepto psicoterapia)
- Seguro de accidentes para el titular de la póliza, desde sólo 5,13 €/mes\*
- Descuentos por forma de pago y por número de beneficiarios
- Importantes ventajas fiscales

\* Es necesaria la contratación del seguro de accidentes para el titular de la póliza.

**Exclusivo abogados  
desde 42,98 €/persona/mes**

Oferta exclusiva para nuevos clientes miembros de los Colegios de Abogados del País Vasco, cónyuges e hijos, menores de 65 años. Consultar coberturas con franquicia. Ver condiciones generales de las pólizas. Precios 2012. R.P.S.: 69/06



Medicina de vanguardia

902 311 902  
agencia@imq.es  
www.imq.es

**IMQ**

Tu seguro médico

# HIPOTEKA ZORDUNAREN ABOKATUAREN EGINKIZUNA HIPOTEKA-EGIKARITZEEN AURREAN. DEFENTSA BADAGO



Luis María  
Cordero  
Martínez

Joan den maiatzaren 29an, gure Bazkunean, hipoteka-zordunaren abokatuaren eginkizunari buruzko trebakuntza juridikoaren tailerra egin zen. Hizlaria Luis María Cordero Martínez lankidea izan zen.

Gaur egungo krisi-egoera eta higiezinaren arloko zorarena direla eta, hipoteka-egikaritzeen prozedurek gora egin dute gaur egun. Hori dela eta, zorduna eta bere familia gizarte-bazterketa jasateko puntuan egon daitezke. Prozedura horietan aurka egiteko arrazoiak mugatuta dauden arren, konpontzeko eta defentsarako bideak ezar daitezke, judizialak zein judizioz kanpokoak. Tailerraren bidez, hipotekagauzatezaren ikuspegi orokorra ezagutzera eman nahi zen.

Hizlariaren esanetan, gaur egungo egoeran

“gainzorpetzea” dago; izan ere, zorpetze kasuen %95 ez dira bilatuak izan, krisi ekonomikoaren ondorioak dira, hala nola langabeziarengatik, alokairuak txikitu direlako... Ez dago legegintza-neurririk egoera hobetzen laguntzeko; gobernu sozialistak aurreko legegintzaldian boterea eskuratu orduko proiektu bat zuen, hipoteka-zordunei mesede egingo ziena; hala ere, agintaldian ez zuten inolako neurririk ezarri zordun horiei mesede egiteko.

“

**Askok lortzen zizuten etekinak etxebizitzaren negozioetik**

”

Luis Corderok datu batzuk eman zituen, Espainiak une honetan bizi duen egoera kezkarria erakusteko. 1997 eta 2007 bitartean, etxebizitzaren prezioak %200 egin zuten gora, etxebizitza eskuratzeko batez besteko ahalegina familien diru-sarreraren %28,4tik %51,3ra hazi zen; aldi berean, 8.3 milioi hipoteka formalizatu ziren, 2007 eta 2011 bitartean hiru milioi lanpostu

galdu dira (%50 eraikuntzari dagozkie, eta %60 gutxienez sektore horrekin zeharka lotuta daude), berankortasun-tasa 2006an %0,43 zen, eta ia %2,78, hipoteka-betearazpenak 2006an 17.605 izan ziren eta 2010ean 93.622. Berankortasun-tasari dagokion beste tasa bat da etxebizitzako kreditu berankorrek 18.300 milioioak direla eta sustatzaile-erakitzailearenak 80.000 milioioak; egoera hori gizarterako kaltegarriagoa da familien egoera baino.

Aspaldi, zordunak zorra ordaintzen ez bazuen, ulertzen zen zordunak ez zuela ordaindu nahi; hala ere, gaur egun, zalantzarik gabe, familiek likidezia-gabezia dute, eta kasurik gehienetan ezinezkoa egiten zaie maileguari aurre egitea, haien egoerak makurrera egin duelako; bestalde, enkanteetara ez da inor joaten arrazoi berberengatik. Hori dela eta, ohikoena da bankua etxebizitzarekin gertzea.

Egoera kezkarria den arren, Euskadi hipoteka-betearazpen gutxien duen autonomia-erkidegoa da. Murtzia eta Kanariak daude lehen postuetan. Edonola ere, autonomia-erkidego guztietan egoera okerrerantz egiten ari da. Bankuak 2004an hasi ziren mailegu gutxiago ematen, eta urte horretan kutxek eman zituzten mailegu gehien.

Hori guztia dela eta, galdera bat egin dezakegu: nork lortzen ditu etekinak hipoteka-betearazpenarekin? Zalantzarik gabe, kaltetuena zorduna da. Bankuentzat ere ez da guztiz atsegina, kasu askotan ezin baitute higiezina saldu eta higiezin horren gaineko gastuei aurre egin behar diete; modu berean, administrazio publikoek gastu gehiagori aurre egin behar diete; izan ere, hipoteka-betearazpenaren prozedura dela-eta bazterketa jasateko arriskuan geratu diren familiek babesa behar dute eta epaileek batzuetan ezin dute egin sentimenduek esaten dietena, ez baitago hori egin ahal izateko legeriarik.

Gogoeta horrekin lotuta, bitxia da Elcheko Lehen Auzialdiko Epaitegiak 2011ko uztailaren 28an emandako probidentzia. Higiezina banku-entitateari emateko, entitateak zehaztu behar zuen zer erabilera emango zion higiezinari, higiezina hirugarren bati saldu edo higiezina jabe berriei gaur egungo okupatzaileak baino baldintza hobekoetan alokatu arte.

Prozedurako kaltetu nagusia hipoteka-zorduna da, guztiok onartu ditugun inguruabar batzuen ondoriozko gainzorpetzearen biktima baita: ohiko etxebizitza ondare bihurtzea (etxebizitzaren balioa modu mugagabe handitzea), alokairuaren kulturarik ez egotea, etxebizitza eskuratzeagatik zerga-arinketarik ez egotea, interes-tasa txikiak, amortizazio-epea luzatzea, publizitate iruzurti eta erasotzailea, etxebizitza eskuratzeko erabili genuen entitatearekin nahitaez lotuta egotea alde-rantzizko hipotekara arte, lurzorua kausula...

Gertaera horien aurrean, orain arte, herritarrek ez dute desadostasunik agertu; neurri batean, askok lortzen zituzten etekinak etxebizitzaren negoziotik. Hala ere, gaur egungo egoeraren aurrean, iritsi da garaia gizarte-esparru guztietatik erantzuteko, hipoteka-zordunaren abokatuaren esparrua barne hartuta, zorduna defendatzen duen neurrian.

Abokatuok dugun arazorik handiena hipoteka-zordunaren egoera babesteko legegintza-neurririk ez egotea da;



egoera eutsiezina den arren, hizlariak zordunaren egoera hobetzeko ideia batzuk azaldu zituen, hala nola hurrengo hauetara jotzea: Bitartekoak ez dituzten hipoteka-zordunak babesteko presako neurrien 6/2012 Errege Dekretu Legea eta Eginera Onen Kodea.

Modu horretan, gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten zordunak babestu nahi dira. Araudi hori aplikatzeko, hipoteka ohiko etxebizitzaren gainekoa izan behar da, mailegu bat egon behar da eta familiako kide guztiak langabezian egon behar dira; kasu horretan, interesak ordaintze-interesa bidez 2,5en batura izango dira. Zordun guztiei aplikatuko zaie, eta horri atxikitzea borondatezkoa da, entitate gehienak atxiki diren arren.

Zordunak maileguaren ordainketan berregituratzea eskatu ahal izango du, edo 4 urtez ordaindu gabe egon ahal izango du edo mailegua 40 urtera arte luzatu ahal izango du. Kasu horietan, banku-entitateak berregituratzea onartu egin behar du. Modu berean, entitateari zorraren barkamena eskatu ahal zaio, baina kasu horietan erantzuna aukerakoa da.

Aurreko neurri bat ere posible ez bada, ordainean ematera jo daiteke prozedura hasi denetik 12 hileko epean etxebizitza hirugarren bati edo entitate bati ematen bazaio. Ordainean ematea ezin izango da aplikatu enkantea iragartzen denean edo etxebizitzak geroko areagotzeak baditu; horrek guztiak zeharka Hiri Errentamenduen Legean ezarritako epeak aldatzen ditu.

Hipoteka-betearazpenaren prozedurari dago-kionez, lehenengo eta behin, hizlariak azaldu zuen betearazpen berezia duen prozedura dela. Beraz, araututa ez dagoen horretan Prozedura Zibilaren Legeko arauak aplikatu daitezke. Prozedurarako balio bat finkatuta egon behar da tasazioa egiteko, aurkaritza mugatuta dago, ez du gauza epaituaren ondorerik sortzen eta ez du konstituzio-defentsaren eskubidea urratzen.

“

**Arazorik handiena hipoteka-zordunaren egoera babesteko legegintza-neurririk ez egotea da**

”

Azken gai horren inguruan, Konstituzio Auzitegiaren auto baten bidez Sabadelleko 2. Auzialdiko Epaitegiak 2010eko irailaren 30ean planteatutako konstituziotasun-arazoa ez zen onartu. Ez zen hipoteka zalantzan jarri betearazpen-prozedura eteteko.

Bestalde, Bartzelonako Merkataritza arloko Epaitegi batek epaiketa aurreko erabaki baten eskaera aurkeztu zuen 2011ko abuztuaren 8an, hurrengoa planteatuz: PZLren 595. artikulua eta hurrengo arabera hipotekatutako edo bahitutako ondasunen gaineko titulu judizialen sistema, Espainiako antolamendu prozesalean ezarritako aurka jartzeko arrazoiei dagokienez dituen mugekin, ez da kontsumitzailearen babesaren muga argia, kontsumitzaileak epailearen babes judiziala bermatzeko ekintzak



edo errekurtsio judizialak egikaritzeko oztopo formal eta materiala den aldetik?

Era berean, Valladolideko Lehen Auzialdiko 8. zenbakiko Epaitegiak 2012ko otsailaren 27an ukatu egin zion betearazpen-agindua entitate bati; izan ere, etxebizitza bat 90.000 euroren truke saltzeko iragarkia egin zuen, eta esleipena 80.000 euroren truke izan zen, benetako balioa etxebizitzari emandako baliorik handiena baino handiagoa zela jakinda.

Botere judizialak egoera baretzeko egindako ahalegina gorabehera, egia esan, hipoteka-betearazpenari aurka egiteok arrazoiak mugatuta daude: bermea edo betebeharrak bermatua etetea, akatsa eskatzeko moduko kopurua zehaztean (zorduna aurka jartzea eta hartzekodunaren zama). Eskaeran saldoak agertu behar du. Ekonomista bat

egon behar da bankuak hizpatutako saldoa egokia den esateko; zordunak zein zenbatekorekin ados ez dagoen zehaztu behar du, baina frogatu egin behar du.

Aurka jartzeko balizko beste arrazoi batzuk Luis Corde-rok planteatu zituen: jardunen deuseztasuna epailearen aurrean? Botere Judizialaren Lege Organikoaren 240. artikulua horren alde dago, baita Konstituzio Auzitegiaren 146/98 eta 6/91 epaiak ere; hala ere, aurkakoak dira 373/64 eta 296/93 epaiak. Horietan ezartzen da akatsak eta alegazioak geroko adierazpenean egin behar dira, horrek per saltum babesari saihesten baitu.

Aurka egiteko arrazoi subjektibo moduan alegatu daitezke epaitegiaren gaitasuna, bitartekaritza, gaitasun edo legitimazio deklinatorioa; arrazoi objektiboa betearazpen-tituluaren erregulartasun formal, prezioa, egoitza, aurretiazko mugaeguna eta dokumentuak interes aldakorrek kasuetan eta betearazpena eragiketa-saldoarengatik. Aurretiazkoak notarioen arloko ordainketa judizialaren edo judizioz kanpoko ordainketaren errekerimendua izango liriteke, hori guztia PZLren 581. eta 686. artikulua direla bide.

Baina ohiko adierazpena eteten ez bada, posible da etetea lortzea? Kasu horietan, posible da zigor-kaltegarritasuna aplikatzea, PZLren 569. eta 697. artikuluetan ezarrita dagoen bezala. Hori dela eta, kausa kriminala egon behar da, egiaztatua eta aldi berekoa, eta horretan posible da iruzur prozesala ezar daiteke betearazpen-aginduen baliogabetasuna nahiz ez-zilegatasuna egoteagatik; eteteko gaitasuna arlo zibileko epailearena da.

Bestalde, prozedura hasi ondoren, posible da prozedura hori ezerezean uztea edo askatzea finantzaketa kontsignatzen bada, eta zordunaren edo beste pertsona baten aldetik ordaintzen bada. Nagusia eta berandutza interesak ordaindu behar dira eta hartzekoduna ezin izango da aurka jarri. Epaileari eskatu ahal izango zaio eta horrek, aldi berean, hartzekodunari eskatu beharko dizkio ordaindu nahi diren kopuruak; eteteko, nahitaezkoa da familia-etxebizitza eta kontsignazioa egiaztatzen dituen idazkia.

Okupatzailea botatzeari dagokionez, zorduna soilik bada, PZLren 703 eta 704. artikuluen arabera, ez dago in-tzidenterik, eta epaileak "bidezkoa dena" zehaztuko du; esleipenaren aurretiazko inskripzioa ez da beharrezkoa, legearen hitzez hitzekotasuna kontuan hartuta. Okupa-

“  
**Eteteko aukera bat zigorraren kaltegarritasuna alegatzea da, PZLren 569. eta 697. artikuluetan oinarrituta**  
 ”

**IRAGARKI  
 TAULA  
 TABLÓN DE  
 ANUNCIOS**

Se ofrece COMPARTIR DESPACHO centrico y equipado en local a pie de calle en calle muy centrica de Las Arenas (Vizcaya). Interesados llamar a los telefonos : 629 12 95 64 //// 94 464 07 15.”

BULEGO HORNITUA PARTEKATZEA eskaintzen da, Areeta-ren (Bizkaia) erdialdeko lokal batean, behe solairuan. Intere-sa duzenok, deitu telefono-zenbaki hauetara: 629 12 95 64 //// 94 464 07 15.”

tzaille moduan hirugarren bat badago, konstituzio-eskubidea zaintzeko intzidente bat eskatzen da etxebizitza okupatzeko eskubidea duen jakiteko, eta hamar egun ematen zaizkio bere egoera azaltzeko. Edonola ere, betearazleak intzidentea enkantearen aurretik abiatu ahal izango du.

Uztailaren 1eko 8/2011 Errege Dekretuak lege prozesalari aldatzen ditu, esanbidez esaten ez duen arren. Enbargatu ezin den zenbatekoa handitu egin da, eta orain 962,10 eurokoa da; kopuru hori %30 handitzen da familia-nukleoko kide bakoitzeko diru-sarrerarik ez duenean. PZLren 607. artikulua ere, enkanteari buruzkoa, aldatu egiten da. Posible da alderdiek kontsignazioa bankuko abalaren bidez egitea (PZLren 647.1, 3.), eta aldi berean, likidoaren balioa %20 murritzten da (669. artikulua).

Bestalde, 2011ko urriaren 10eko 37/2011 Legeak, Bizkortze Prozesalerako Neurriak buruzkoak, PZLren 579. artikulua aldatu du. Lehen hau ipintzen zuen: "alderdi betearazleak enbargoa eskatzeko falta den kopuruarengatik", eta orain: "alderdi betearazleak betearazpen-agindua eskatzeko falta den kopuruarengatik"; berearazpen-demanda bide arruntetik aurkeztu behar da, eta beraz, horri aurka egitea ere arrunta izango da.

Hizlariaren esanetan, PZLren 579. artikuluan jaso da hipoteka-zordunarentzako benetako defentsa, aurka egiteko arazoak (bide arruntera igarotzean) zabalagoak baitira.

Hipoteka-zordunaren defentsarako erregistratzaileen eta notarioen laguntza ere izan daiteke: posible da erregistratzaileak hipoteka ez inskribatzea edo aurkezlearen adostasunarekin inskripzio partziala egitea, neurritz kanpoko klausulak ez aplikatuz. Bestalde, notarioak, No-

tario Erregistroaren 218. artikulua eta PZLren 573,2.) artikulua araberak, aukera du neurritz kanpoko klausulak ez aplikatzeko.

Bestalde, doako justiziarik dagokionez, Bazkunetik bultzatzen da kasu guztiak Batzordearen aurrean izapidetzea eta Doako Laguntza Juridikoaren Legeari buruzko 5. artikulua aplikatzea; etxebizitza zenbaketa-ondoretarako kanpoan geratzen da.

